

a.4 OINARRI-OINARRIZKO HIZTEGIA ETA HAINBAT EGITURA

> Agurrak



- Agur bakoitza noiz

Helburuak

- Euskal agurrak ezagutzea.
- Agur bakoitza noiz erabili behar den ulertzea eta erabiltzea.

Prozedura

- Irudi batzuen esanahia identifikatu beharko dute fitxan. Irudiak, egunean zehar egiten diren ekintzen ingurukoak dira. Umeei, irudiei egun on, arratsalde on edota gabon dagokien asmatu beharko dute.
- Umeei fitxa banatu. Bakarkako lana dela azaldu.
- Irudiei zein agur dagokien asmatu behar dutela esan.
- Irudi bakoitza ekintza bat dela esan, eta izena emateko eskatu. Euskaraz ez badakite euren hizkuntzan idatzi dezatela.
- Talde handian fitxa zuzendu agurrak ondo egokitu dituzten ikusteko.
- Ekintzei zein izen jarri dieten galdetu. Argazki-albumeko irudien laguntzaz, ekintza bakoitzari euskal izena jarri.